



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

LEIRE GORDO CASTRO

**zinegotziak**

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

OIER MINTEGI ZEBERIO

ENERITZ ITURBE URDALLETA

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2017ko maiatzaren 30an, arratsaldeko 19:00an, eta Udaleko alkate udalburua, Leire Gordo Castro izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

**GAIAK**

**LEHENA. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

**BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

581/2016 Dekretua

603/2016 Dekretua

8/2017 Dekretua

12/2017 Dekretua

36/2017 Dekretua

42/2017 Dekretua

49/2017 Dekretua

51/2017 Dekretua

53/2017 Dekretua

589/2016 Dekretua

608/2016 Dekretua

11/2017 Dekretua

18/2017 Dekretua


37/2017 Dekretua

43/2017 Dekretua

50/2017 Dekretua

52/2017 Dekretua

55/2017 Dekretua



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

60/2017 Dekretua  
65/2017 Dekretua  
71/2017 Dekretua  
90/2017 Dekretua  
94/2017 Dekretua  
98/2017 Dekretua  
105/2017 Dekretua  
109/2017 Dekretua  
117/2017 Dekretua  
123/2017 Dekretua  
132/2017 Dekretua  
141/2017 Dekretua  
145/2017 Dekretua  
149/2017 Dekretua  
153/2017 Dekretua  
156/2017 Dekretua  
164/2017 Dekretua  
169/2017 Dekretua  
172/2017 Dekretua  
185/2017 Dekretua  
189/2017 Dekretua  
193/2017 Dekretua  
200/2017 Dekretua  
208/2017 Dekretua


62/2017 Dekretua  
66/2017 Dekretua  
88/2017 Dekretua  
92/2017 Dekretua  
96/2017 Dekretua  
100/2017 Dekretua  
107/2017 Dekretua  
110/2017 Dekretua  
118/2017 Dekretua  
129/2017 Dekretua  
135/2017 Dekretua  
143/2017 Dekretua  
147/2017 Dekretua  
151/2017 Dekretua  
155/2017 Dekretua  
158/2017 Dekretua  
167/2017 Dekretua  
171/2017 Dekretua  
173/2017 Dekretua  
186/2017 Dekretua  
191/2017 Dekretua  
197/2017 Dekretua  
206/2017 Dekretua  
210/2017 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

### **3.- 2016 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA**

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2016 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epategiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluan aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

**4.- 2017/01 KREDITU ALDAKETA**

**“KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 1 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharrezun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

**ERABAKI DA**

1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
210.153.40.01	Bestelako Mantenimenduak	20.069,44	10.636,02	30.705,46
211.342.00.01	Frontoiaren Mantenimendua	500,00	1.000,00	1.500,00
220.920.00.03	Informatikako Materiala	1.000,00	500,00	1.500,00
221.342.00.04	Kirol Instalazioen Berogailua	500,00	500,00	1.000,00
226.920.00.04	Aholkularitza Juridikoa	8.000,00	3.000,00	11.000,00
227.164.00.01	Landarri	1.090,69	10,89	1.101,58
227.311.70.99	Irati. Arratoi Suntsiketa	2.300,00	516,21	2.816,21
480.230.00.01	Erakundeei Laguntzak	5.000,00	2.000,00	7.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>38.460,13</b>	<b>18.163,12</b>	<b>56.623,25</b>



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	-----	18.163,12	18.163,12
<b>GUZTIRA</b>		-----	<b>18.163,12</b>	18.163,12

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

**5.- UDALEK, GFAK DITUEN LEGEZKO ORDEZKARIEN ERROLDARA SARBIDEA EDUKITZEKO, ERANSKINA ONARTZEA**

Ogasun eta Finantza Departamentuak udalek GFAk dituen legezko ordezkarien erroldako datuetara sarbidea ahalbidetzeko hitzarmenaren eranskina onartu du.

Ildo horretan, martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduaren bitartez legezko ordezkarien errolda arautzen zuen Foru Agindua aldatu da errolda hori Gipuzkoako udalek erabiltzeko aukera izan dezaten.

Horretarako, aipatutako Foru Aginduak, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren hitzarmenaren eranskin berri bat onartzen du, hain zuzen, D-7 eranskina "Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta" izenekoa.

Horiek horrela, udal honek legezko ordezkarien erroldako datuak kontsultatzeko aukera izatea nahiko balu, hau litzateke jarraitu beharreko prozedura:

1. D-7 eranskina sinatzeko erabakia. Udal-organo eskudunak hartu beharreko erabakia, hala badagokio, udalaren izenean sinatuko duen pertsonari horretarako ahalmena eman.
2. D-7 eranskina osatu udalari dagozkion datuekin (erantsitako fitxategian urdinez markatutako atalak) eta, hala nahi izanez gero, udalaren armarrria txertatu.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

3. Dokumentazioa igorri. Udal-erabakiaren ziurtagiria eta osatutako D-7 eranskina (sinatu gabe) Ogasun eta Finantza Departamentuaren Idazkaritza Teknikoari posta elektronikoz igorri helbide honetara: [ldazkaritza\\_ogasuna@gipuzkoa.eus](mailto:ldazkaritza_ogasuna@gipuzkoa.eus)
4. Sinatutako eranskina igorri. Behin egokitasuna egiaztatuta, D-7 eranskina sinatuta igorriko da Ogasun eta Finantza Departamentuaren Idazkaritza Teknikora, foru diputatuaren sinadura jasotze aldera. Sinadura elektronikoa erabiliz gero, sinatutako alea igorriko da erregistro elektronikoaren bitartez. Sinadura eskuz egiten bada, bi ale sinatu beharko dira eta postaz, edo jatorrizko dokumentuak helarazteko balio dezakeen beste baliabideren bat, igorriko dira ale biak.
5. Behin bi aldeek sinatuta, eranskinaren ale bat udalari igorriko zaio. Igorketarekin batera, udalari sinaduraren berri emango zaio posta elektronikoz, organo arduradunak (ikus D-7 eranskinaren 9. puntua) erabiltzaileen kudeaketarekin hasteko aukera izan dezan.

Gogorarazten da eranskin hori sinatzeak berekin dakarrela, besteren artean, espedienteen, sarrera erregistroaren edo jakinarazpen elektronikoaren aplikazioetatik GFAko legezko ordezkarien erroldara sartzea; egun 13.500 bat ordezkari ditu errolda horrek.

Guzti kontutan izan da, Udal honek, ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** Udalek GFA.k dituen legezko ordezkaria erroldara sarbidea edukitzeko eranskina onartzea; honela dio eranskinak:

**D-7 ERANSKINA.- Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta.**

### **1. Deskripzioa.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta.

### **2.- Informazio lagapenaren helburua.**

Ordezkaritza egiaztatzea hirugarren pertsonen izenean egiten diren jarduketan.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

**3.- Arau oinarria.**

Bai administrazio prozedurari buruzko araudiak bai araudi tributarioak ordezkartzaren egiaztapena eskatzen dute hirugarren pertsonen izenean jarduteko.

**4.- Datuen titularren baimena.**

Ez da beharrezkoa. Izan ere, eranskin honetan arautzen den informazioaren lagapenerako, interesdunaren baimena ez da bete beharreko eskakizuna lagapena aurreikusita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 6. artikuluan.

**5.- Eman beharreko informazioaren edukia.**

Udal hartzaileak kontsultatu ahalko du Gipuzkoako Foru Aldundiko legeko ordezkarien erroldan jasotako datuak.

**6.- Informazio lagapenerako prozedura.**

Informazio lagapena bi alderditik egingo da:

- a) Atzipena udalaren zerbitzu telematikoen ataritik: Legezko ordezkartzaren bat duen pertsonak ordezkatzaren duen pertsonaren izenean baliabide elektronikoen bitartez jardutea nahi izango balu, udal aplikazioak ordezkartza baliozkotu du ordezkarien erroldan dagokion kontsulta eginez.
- b) Udal langileen atzipena: Udal hartzaileak izendatutako langileek legeko ordezkarien erroldan atzitu ahalko dute, oinarrizko kontsulta profilekin, zerbitzari seguru batean horretarako berariaz prestatutako zerbitzua erabilita. Sistemak baimendutako erabiltzaileen autentifikazioa eskatuko du betiere, eta komunikazio segurua eta j datuen osotasuna eta konfidentziasuna bermatuko ditu.

Horrek guztiak ez du eragotziko beste bideren bat ezartzeko aukera, kasu jakin batean eraginkorrago eta komenigarriago dela iritzita, betiere hein berean segurua bada, eta horretarako eskuragarri eta baliagarria bada.

**7.- Lagapenaren aldizkakotasuna eta eragiten dien pertsonen kopurua.**

Kontsulten aldizkakotasuna iraunkorra eta etengabea izango da, udal hartzailearen beharren arabera.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Ezin da eragingo duen pertsonen kopurua zehaztu, kontsulten zenbatekoa baliabide elektronikoen erabiltzaileen eta horiek legezko ordezkari-tza erregistratuta duten ala ez menpe baitago.

**8.- Emandako datuak hirugarren bati lagatzeko aurreikuspena.**

Ez

**9.- Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratuko den organoa.**

LEIRE GORDO CASTRO, 72.457.472 C – Alkatea – [alkatetzalizardza@gmail.com](mailto:alkatetzalizardza@gmail.com)  
ANA JESUS ZABALA GARMENDIA, 72.431.427 B – Idazkari-Kontu hartzailea – [idazkaritza@lizartza.eus](mailto:idazkaritza@lizartza.eus)

Erabiltzaileei alta ematea, sarbideak baimentzea eta sarbide horiek etengabe eguneratu eta egokitzea, udal hartzailearen organo arduradunak (edo bestela, IZFEK) egingo duen zeregina izango da, Ogasun eta Finantza Departamentuak gainbegiratzeko duen aukera baztertu gabe.

Nolanahi ere, sarrera kudeaketaren arduradunak erabiltzaileei pertsonalki informatuko die informazioa atzitzearen ondorioz berari dagozkion betebeharrak eta erantzukizunen inguruan.


Udal hartzaileak erantzungo du bere erabiltzaileek legezko eroldaren datuei ematen dieten erabilera-eragatik, eta, zehazki, haiek eskuratzen dituzten datuen proportzionaltasun, egokitasun eta bidezkeratasunagatik.

**10.- Solaskideak.**

*Zuzenbideko gaietarako:* Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / Izen-deiturak, nortasun agiria, lanpostua, e-posta eta telefonoa.

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA, 72.431.427 B – Idazkari-Kontu hartzailea – [idazkaritza@lizartza.eus](mailto:idazkaritza@lizartza.eus)

*Informatika gaietarako:* IZFE, SA / Izen-deiturak, nortasun agiria, lanpostua, e-posta eta telefonoa.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA, 72.431.427 B – Idazkari-Kontu hartzailea – [ldazkaritza@lizartza.eus](mailto:ldazkaritza@lizartza.eus)

*Beste gai material batzuetarako (lagapenaren ohiko kudeaketa...):* Zerbitzu Teknikoa, tlf. 902 100 040 / Izen-deiturak, nortasun agiria, lanpostua, e-posta eta telefonoa.

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA, 72.431.427 B – Idazkari-Kontu hartzailea – [ldazkaritza@lizartza.eus](mailto:ldazkaritza@lizartza.eus)

Bi aldeek beren gain hartzen dute eranskin honetan adierazitako datuak eguneratuak izateko ardura.

#### **11.- Bestelako eginkizunak.**

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren hitzarmenaren hamahirugarren klausulan jasotzen den informazioa sistema tradizionalen bidez bidaltzeko ez eskatzeko eta herritarrari ekarpen indibidualik egiteko ez eskatzeko konpromisoaz gain, udal hartzaileak konpromiso hauek ere hartzen du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinaraziko dio informazio lagapenean gerta daiteken gorabeherak, teknikoak nahiz juridikoak.
- Erroldan inskribatu gabeko legezko ordezkari buruzko informazioa atzitu balu, horren berri emango dio Ogasun eta Finantza Departamentuari, badagokio, ofiziozko inskripzioa egin ahal izateko.

**BIGARRENA.** Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

**HIRUGARRENA.** Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.





**LIZARTZAKO  
UDALA  
GIPUZKOA**

**LAUGARRENA.** Erabaki hauek Gipuzkoako Foru Aldundiako Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinaraztea.

**6.- LIZARTZAKO UDALA ETA IZENPEREN ARTEAN LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA**

**ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, SA-K JAULKITAKO ZERBITZU ELEKTRONIKOAK ARAUTZEKO HITZARMENA**

Idazkaritzak 2017ko maiatzaren 16an egindako txostena ikusi da, Izenpe S.A. eta Lizartzako Toki Erakundearen arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren onartzeko aplikatu daitekeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2017ko maiatzaren 4an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2017ko maiatzaren 9ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:


**ERABAKIA**

**LEHENA.** Izenpe S.A. eta Lizartzako Udala Toki Erakundearen arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan.

**ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, SA-K JAULKITAKO ZERBITZU ELEKTRONIKOAK ARAUTZEKO HITZARMENA**

**Klausulen aurkibidea**

BILDUTA.....	4
AZALDU DUTE.....	5
KLAUSULAK.....	6
1. LEHENA.- XEDEA.....	6



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

2.	BIGARRENA.- INDARRALDIA.....	6
3.	HIRUGARRENA.- BETEBEHAR EKONOMIKOAK.....	6
4.	LAUGARRENA.- ALDEEN BETEBEHARRAK.....	7
5.	BOSGARRENA.- ALDEEN ERANTZUKIZUNA.....	7
6.	SEIGARRENA.- DATUEN BABESA.....	8
7.	ZAZPIGARRENA.- KONFIDENTZIALTASUN KLAUSULA.....	10
8.	ZORTZIGARRENA. – KONTRATUA DEUSEZTATZEA.....	11
9.	BEDERATZIGARRENA.- ALDAKETA ETA JARRAIPENA.....	12
10.	HAMARGARRENA.- JURISDIKZIOA.....	12

HIRIAN, 2017ko HILaren EGUNean

**BILDUTA**

Alde batetik, **LEIRE GORDO CASTRO** andrea, Lizartzako Udaleko Alkatea, haren izenean eta beraren ordezkari gisa. Aurrerantzean, ERAKUNDEA.


Bestetik, **IZASKUN URRESTARAZU AMONDARIAN** andrea, *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificación y Servicios, IZENPE, SA* sozietateko zuzendari nagusia, sozietatearen izenean eta haren ordezkari gisa. Aurrerantzean, Izenpe.

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko behar adinako ahalmen juridikoa aitortzen diote elkarri eta, horren indarrez, honako hau

**AZALDU DUTE**

c) *Lineako ingurunean konfiantzazko giroa sortzea funtsezkoa da ekonomia eta gizartea garatzeko. Mesfidantzak (zehazki, antzemandako segurtasun juridikorik ezaren ondoriozkoak) zalantzan jarrarazten ditu kontsumitzaileak, enpresak eta administrazio publikoak bide elektronikoaren bitartez transakzioak egiteko eta zerbitzu berriak bereganatzeko garaian.*

– *1. kontuan hartuzkoa, 910/2014 Araudia (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa, barne-merkatuko identifikazio*



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

*elektronikoari eta transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.\_*

Zalantzarik gabe, lehen kontuan hartuzko horrek leialki jasotzen du Europako barne-merkatuaren egoera sozioekonomikoa. Egungo gizartea gizarte heldua da, herritarren, enpresen eta administrazio publikoen artean elkarreragin elektronikoak lortzeko gai izango den merkatu digital bakarra sortzeko prestatua; gizarte hau gauza da lineako zerbitzuetan eta negozio elektronikoetan eraginkortasun handienera iristeko; eta, azken batean, sozietate honek erabateko konfiantza du merkatu digital bakarrean.

- d) Esparru arauemaile berri horrek erabateko garrantzia ematen dio, identifikazio eta autentifikazio elektronikoaren segurtasunari ez ezik, elkarreragingarritasunari ere; halakotzat ulertuta informazio-sistemek eta horiek eusten dituzten prozedurek duten ahalmena datuak partekatzeko, elkar ezagutzeko eta informazio- eta ezagutza-trukea fidagarritasunez eta segurtasunez ahalbidetzeko.

Araudiaren xede dira, era berean, konfiantzazko zerbitzuak (halakotzat ulertuta sinadura elektronikoak, zigilu elektronikoak, denbora-zigiluak, entrega-zerbitzuak edo webguneen ziurtagiriak sortu, egiaztatu eta baliozkotzea), lineako ingurunean konfiantza eta segurtasun juridikoa sortzen laguntzen duten heinean.

Konfiantzazko zerbitzu kualifikatuen eta konfiantzazko zerbitzuen emaile kualifikatuaren kontzeptuak sartuta, legegilearen asmoa da herritarrengan konfiantza areagotzea, zerbitzu edo produktu kualifikatuen segurtasun-maila handia ziurtatuko duten eskakizunak eta betebeharrak zein diren adieraztearren.

- e) Esparru horretan lizenpek sortzen dituen identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoek harpidedunei eta, hala badagokio, gakoan edukitzaileei ere aukera ematen diete modu elektronikoan harremanetan jartzeko administrazio publikoekin, erakunde erabiltzaileekin eta haiek erabiltzea onartu duten instituzio publiko eta pribatuekin, baita azken horien artean ere.

lizenpek, ziurtagirietan oinarritutako identifikazio- eta sinadura-bitartekoez gainera, baditu ziurtagirietan oinarritu gabeko identifikazio-tresnak.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

- f) **HIRUGARREN ALDEAK** interesdunen identifikazio eta sinadura elektronikoko sistematzat onartzen ditu bai ziurtagirietan oinarritutako sistemak, bai beste edozein sistema.
- g) Ondorioz, helburu izanik interesdunei aukera ematea Izenpek jaulkitako bitarteko elektronikoak erabiltzeko, bi aldeek interesa dute jarraian adierazten diren klausulen arabera lankidetzan aritzeko.

## **KLAUSULAK**

### **LEHENA.- XEDEA**

Orexako Udala Izenperekin lankidetzan arituko da identifikazio eta sinadurako bitarteko elektronikoak jaulkitzen, eta erregistro-erakundetzat jardungo du.

Erregistro-erakundetzat jarduteak berekin ekarriko du zeregin hauek egitea: erabiltzaileen nortasuna egiaztatzea, erregistro-erakundean jasotako inguruabarren ziurtagiriak egiaztatzea, eta igortzeko, ezeztatzeko/baliogabetzeko eta berritzeko eskaerak baliozkotu eta onartzea.

### **BIGARRENA.- INDARRALDIA**

Hitzarmen honek urtebeteko indarraldia izango du, berori sinatzen denetik hasita, eta automatikoki berrituko da idatziz eta fede emanez salatzen ez badu aldeetako edozeinek, betiere epemuga baino bi hilabete lehenago gutxienez.

### **HIRUGARRENA.- BETEBEHAR EKONOMIKOAK**

Hitzarmen honek ez du sorraraziko betebeharrak ekonomikorik aldeetako inorentzat.

### **LAUGARRENA.- ALDEEN BETEBEHARRAK**

#### Izenpek

- [Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan](#) esleitzen zaizkion betebeharrak beteko ditu.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

- Konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren zerbitzuak egiteko, oinarri hartuta eraginkortasunaren, kalitatearen, segurtasunaren eta gardentasunaren printzipioak.

**HIRUGARREN ALDEAK**

- Erregistro-erakundearen zereginak egingo ditu, *Izenperen Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan* ezarritakoari jarraituz.
- Konpromisoa hartzen du bere jardunean oinarri hartzeko eraginkortasunaren, kalitatearen, segurtasunaren eta gardentasunaren printzipioak.
- Bete egingo du [Izenperen hornitzaileen segurtasun-politika](#).


**BOSGARRENA.- ALDEEN ERANTZUKIZUNA**

Izenpek

- Hemen zehaztutakoa egoki betetzeaz erantzungo du.
- Hitzarmen honen ondoriozko bere betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragiten dituen kalteen erantzulea izango da.
- Zehazki, konfiantzazko zerbitzuen egile gisa, bere jardueraren eraginez edozein pertsonari eragiten dizkion kalte-galerei erantzungo die, baldin eta hitzarmen honek edo konfiantzazko zerbitzuen alorrean aplikatzekoa den legeriak ezartzen dizkion betebeharrak betetzen ez baditu edo arduragabekeriaz jarduten badu.

**HIRUGARREN ALDEA** erantzule izango da,

- Izenperen aurrean, hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragiten dituen kalteak direla eta.
- Zerbitzua egoki erabiltzeaz, hitzarmen honetan zehaztutakoaren arabera.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

- Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan zehaztutakoa betetzeaz, aplikatzekoa den guztian.

**SEIGARRENA.- DATUEN BABESA**

6. Aplikatzeko datu pertsonalen babes-erregimena izango da *Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legean* (aurrerantzean, DBLO) eta hori garatzen duten arauetan aurreikusitakoa.

Zehazki, Izenpek (aurrerantzean, *Erantzulea*) izango du hitzartutako zerbitzuen datuak tratatzen dituzten fitxategien ardura, DBLOaren arabera.

Fitxategi horiek Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Erregistro Nagusian deklaraturatu daude.

Izenpek datu pertsonalei aplika dakizkiekeen segurtasun-neurriak bermatuko ditu, izaera teknikokoak zein antolamendukoak, betiere Izenperen segurtasun-politikako dokumentuan ezartzen denari jarraituz.

7. Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera Izenperen erregistro-erakunde gisa diharduenean, **HIRUGARREN ALDEA** izango da tratamenduaren arduraduna (aurrerantzean, *Arduraduna*), DBLOaren 12. artikulua arabera.

*Arduradunak*

- Ezin izango ditu datu horiek erabili hitzarmen honetan adierazitako xedez bestelako xede baterako.
- Hitzematen du datuak *Erantzuleak* adierazten dizkion jarraibideen arabera tratatuko dituela (kasu honetan, segurtasun-arduradunaren aginduak dira).
- Ez dizkie inola ere datuak jakinaraziko, erakutsiko, lagako edo emango harremanaz kanpo dauden hirugarren pertsoneri, ezta kontserbatzeko badira ere.
- Hitzematen du indarrean dagoen eta aplikatzekoa zaion datuak babesteari buruzko legerian xedatutako guztia beteko duela.
- Gauzak horrela, *Arduradunak* edo haren mendekoetako edozeinek hitzarmenaren ondorioz ezagutzen duen datu oro erabat konfidentziala da, eta



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

ezin izango die jakinarazi hirugarren batzuei, ezta norberak erabili ere. Berarentzat eta eraginpean daudenentzat sor daitezkeen kalteengatik erantzun beharko du.


- Ziurtatzen du bere kargura dauden langileek konfidentzialtasun-klausula bat sinatu dutela, eta, hori dela-eta, langile horiek hitzeman dutela bere karguaren edo zereginaren ondorioz ezagutzen duten informazioaren berri emango ez dutela, hitzarmen hau gauzatzen den bitartean zein ondoren.
- Hitzarmen honen ondoriozko datuen bat mantentzeko baimena jaso badu, zerbitzugintza amaitutakoan datu hori *Erantzuleari* itzuli edo, hala badagokio, suntsitu egin beharko du, baita datu hori jasoarazten duen euskarria edo dokumentua ere.
- Bestalde, DBLOan jasoarazten den erantzukizun-erregimenaren mende izango da, eta pertsonalki erantzun beharko du, baldin eta datuak hitzarmen honetan adierazitako xedeaz bestelako xede baterako erabiltzen badira, hirugarren batzuei datuen berri ematen badie, edo hitzarmen honetako klausularen bat bete gabe erabiltzen baditu.
- Indarrean dagoen datuak babesteari buruzko araudiak ezartzen dituen bidezko segurtasun-neurriak –fisikoak, logikoak eta antolamendukoak– ezarri beharko ditu. Zerbitzugintzan eskura dituen datu pertsonalen araberako neurriak izango dira.

*Erantzuleak*, egoki baderitzo, datuak babesteari buruzko ikuskapen-txostena eskatu ahal izango du urtero. Ikuskapen horren mende izango dira zerbitzugintzako datu pertsonalen tratamendu automatizatuan esku hartzen duten pertsonak, fitxategi automatizatuak, tratamendu-zentroak, lokalak, ekipamenduak, sistemak eta programak.

Txosten horretan banakatuta jasoko dira, batetik, kontratatutako zerbitzuak eta, bestetik, DBLOaren eta segurtasunari dagokion haren garapen-araudiaren betetze-maila.

Ikuskapena arduradunak eta erantzuleak aurretik onartutako aditu independenteek egingo dute. Edonola ere, haien ingurunean izen handiko profesionalak izango dira.

*Arduradunak* hitz ematen du datuak babestearen alorreko aldirian behingo ikuskapenak egin ahal izateko moduko informazio-sistemak eta -aplikazioak ezarriko dituela.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

## ZAZPIGARRENA.- KONFIDENTZIALTASUN KLAUSULA

Hitzarmen honetan zehaztutako xedearen ildotik, aldeek informazio eta/edo dokumentazio konfidentziala izan dezakete eskura. Konfidentzialtasun horri eusteko, bi aldeek konpromisoa hartzen duten jarraian adierazten diren hitzarmenak betetzeko.

- Eskura duten tratatutako informazio eta/edo dokumentazio guztiaren gainean ahalik eta erreserbarik handiena mantentzeko eta isilpean gordetzeko konpromisoa hartzen dute. Bi aldeek informazio hori konfidentzialtzat joko dute ondorio guztietarako.
- Ez diete inola ere hirugarren batzuei eskura duten informazioaren eta/edo dokumentazioaren berri emango, ezta informazioa gordetzeko ondorioetarako ere. Zehazki, hirugarren pertsona batzuei ez diete inoiz ere lanen barruan haiengana irits daitekeen edozein motatako informazioa emango, baldin eta ez badute hori egiteko beste aldearen aurretiazko adostasun idatzirik.
- Era berean, konfidentziala izango da hitzarmen honen ondoriozko informazioaren inguruan aldeek jaulkitako edozein txosten edo ahozko zein idatzizko jakinarazpen. Ezin izango zaie hirugarren batzuei erakutsi eta ezin izango da banatu edo jendaurrean aipatu beste aldearen aurretiazko eta idatzizko baimenik gabe.
- Ematen zaien edo eskura duten informazioaren segurtasuna (integritatea, eskuragarritasuna eta konfidentzialtasuna) bermatzeko beharrezko neurri tekniko guztiak mantenduko dituzte une oro, baita antolamendu-neurri guztiak ere. Kasuak kasu agintzen zaizkien lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak egiten diren bitartean, informazioa aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe sartzea saihestuko dute.
- Haien langileek egiten dituzten zereginak hitzarmen hau betetzeko behar-beharrezkoak diren zereginetara soilik eta berariaz mugatuko direla bermatu dute. Era berean, hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak eta eskura duten informazioa tratatzearekin lotzen diren betebeharrak jakinarazi beharko dizkiete haien langileei eta laguntzaileei. Zehazki, betebeharrak horiek betetzen direla bermatzeko, behar beste ohar luzatuko dizkiete haien langileei eta beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetuko dituzte.
- Aldeek onartzen dute eta bere gain hartzen dute informazioa soilik eskuratu eta tratatuko dela hura eskuratzeko beharrezkoa bada hitzartutako lanak, proiektuak, zerbitzuak eta/edo eskariak egiteko.





**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Informazio hori eskuratu eta tratatzean, ezarritako politika, arau eta prozedura guztiak errespetatuko dituzte, **HIRUGARREN ALDEAK** bere aldetik ezarritako politika, arau eta prozedura guztiak baztertu gabe. Azken horiek ere nahitaez bete beharko dira segurtasun-maila handitzen badute.

Kasuak kasu erabakitzen diren lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak egiten amaitu ostean, edozein formatutan jaso duten informazio guztia itzuli edo suntsitu beharko dute. Ezin dute inola ere gorde informazio horren guztiaren edo zati baten kopia, ezta agindutako lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak betetzearen ondorioz sor daitekeen bestelako informazioaren kopia ere.

- Bermatuko dute konfidentzialtasunaren eta sekretu profesionalaren betebeharrak iraun egingo duela hitzarmen hau amaitu ostean ere edozein kausagatik amaitzen delarik. Betebehar horrek, beraz, iraupen mugagabea izango du.

#### ZORTZIGARRENA. – KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Kontratua amaituko da, lege ezarritako eta klausuletan xedatutako kausez gain, honako kausetako bat suertatzen denean:


- Bi aldeen arteko adostasuna.
- Aldeetako batek kontratuaren ondoriozko betebeharrak ez betetzea.
- Izenpek ezarritako zuzentarauak ez betetzea.

Lehen adierazitako kausengatik edo zuzenbidean onartutako beste edozeinengatik kontratua deuseztatu edo deseginez gero, **HIRUGARREN ALDEAK** bete egin beharko ditu kontratu hau deuseztatu aurretik Izenperen aurrean eta hirugarren batzuen aurrean bere gain hartutako betebeharrak.

#### BEDERATZIGARRENA.- ALDAKETA ETA JARRAIPENA

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean aldaketak egin daitezke, betiere izenpetzen duten alderdiek elkarrekin adostuta, eta erabakitako aldaketak hitzarmenari gehituko zaizkio eranskin moduan.

#### HAMARGARRENA.- JURISDIKZIOA



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Hitzarmen hau interpretatzean edo gauzatzean, bi aldeen artean sortzen den edozein auzi ebazteko Gasteizko auzitegien eta epaitegien mende jarri beharko da.

Adostasun-froga gisa, bi aldeek sinatu dute hitzarmen hau.

**BIGARRENA.** Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

**HIRUGARRENA.** Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Erabaki hauek Izenpe S.A.ri jakinaraztea.


**7.- JMP PEÑAGARICANO MODELOS PARA FUNDICIÓN S.L. LURRAREN OKUPAZIOA**

**IKUSIRIK,** JMP Peñagaricano Modelos Para Fundición SLko Administrazioaile bakarra den Maite Peñagaricano Ahedok, 2015ko abenduaren 28an Lizartzako Udalan aurkeztutako eskaera eta 2016ko uztailaren 28ko txostena, non gas GLP gordailu bat jartzeko jabari publikoa okupatzea eskatu den.

**KONTUTAN HARTUZ,** egindako txostenaren arabera, Lan arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 legea eta berau garatzen duen 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lanpostuetako segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak betetzeko eskatutako instalazioa ezinbestekoa da.

Zehazkiago, 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lanpostuetako segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezartzen dituenak, enpresaren instalazio barne aldearen tenperatura 14° eta 25 ° bitartekoa izan behar duela adierazten du.

JMP Peñagaricano Modelos Para Fundición SLren txostenean, industria lokal hauentzako egokiak diren aukera ezberdinak azertu dira eta egokiena gas GLPko tutuena da. Sistema honek gas gordailua baten instalazioa eskatzen du baina 60250:2008 UNE arauak bere 5.1.4 atalean, mota honetako instalazioak eraikinen barne aldean egitea debekatzen du.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

**KONTUTAN HARTUZ**, GLP gasaren gordailua pabiloiaren albo batean egingo litzateke eta jabari publikoa okupatuko luke, zehazki Lizartzako Irunzubiko industria poligonoan kokatutako 2,250 mko zabalera eta 5,075 mko luzera duen aparkaleku bat lirateke.

**KONTUTAN HARTUZ**, 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa, non 93. artikuluan, salbuespen eta justifikatutako egoeretan zuzeneko kontzesio esleipena ahalbidetzen den.

**KONTUTAN HARTUZ**, 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa, non 86.3 eta 93. Artikuluetan jabari publikoko ondasunen erabilera pribatua arautzen den eta obra eta instalazio higiezinak okupazioa kontzesio administratibo bidez egin behar den.

**ONDORIOZTATUZ**, udal erakundearen eskuduntzen inguruan Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua dioena.

#### **ERABAKI DA**

**Lehena:** GLP gasaren gordailua egiteko, Irunzubiko industria gunean dagoen jabari publikoko lur saileko aparkaleku bat okupatzeko, JMP Peñagaricano Modelos Para Fundación SLen egindako eskaera onartzea.

Gas gordailuaren instalazio lanak eta kostua JMP Peñagaricano Modelos Para Fundación SLen kontura izango dira.

**Bigarrena:** Kontzesio administratiboa formalizatzeko, Lizartzako Udalak eta JMP Peñagaricano Modelos Para Fundación SLen ordezkari legalak kontratua sinatu beharko dute. Eta bertan, ondoko puntuak jasoko dira:

- Jabari publikoko kontzesioa 10 urteko iraupena izango du eta aldean borondatea egonik beste 5 urtez luzatu ahal izango da.
- Ordaindu beharreko kanona  $4,32 \text{ m}^2 \times 5,5 \text{ €} : 23,76 \text{ hilean} \times 12 \text{ hilabete} = 285,12 \text{ €}$  urteko izango da.
- Okupatutako lursaila Gas gordailuaren erabilerarako izango da, beste erabilera ezberdinik ez da onartua izango.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

- Legeak aurre ikusten dituen kontratua eteteko arrazoiak jasoko ditu.
- Gas gordailua eta berau babesten duen instalazioaren mantenua JMP Peñagaricano Modelos Para Fundación SLri

**Hirugarrena:** Ebazpen hau Maite Peñagaricano Ahedo andereari jakinaraztea eta aditzera ematea ebazpen honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, ebazpena jakinarazi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko ebazpena eman duen organoaren aurrean, ebazpena argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

## **8.- MOZIOAK**

### **“GUERNICA” GERNIKARA MOZIOA**

1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak “Guernica” margolana sortu zuen. Lan honek, egun batzuk lehenago, Euskal Herritarren gune kuttun eta esanguratsuenetakoa zen Gernikak Condor Legio naziak Francoren agindupean jasandako bonbardaketa eta sarraskia salatzen du. Beraz, aurten 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, baita honen aurkako karraxi artistikoa sortu zenetik ere. Urteurren hau, Gernika zein Euskal Herritarren beste eskaera eta garraxi bat zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: “Guernica” margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz.

Margolana 1937an sortu zen eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zanpalkuntza, gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.

Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernika eta bere historiari lotua ez baldin ba dago, hura izan bait zen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatzen eraman zuena. Horren jakitun, Gernika eta Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du, aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoan egon ordez, Gernikan bertan egotea dela egokia.

Behin baina gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio eta mantentze arrazoi teknikoak aipatuz, “Guernica” bere etxera ekartzera ukatu egin izan dira. Gaur egun, garraio eta mantenurako beharrezkoak



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute Euskal instituzioek eta ez da sinesgarria egiten argudiategi hori mahai gaineratzea. Beste behin ere, Madrileko Gobernuak dituen interes ekonomiko zein politikoak daude “Guernica” Euskal Herrira ez ekartzeko arrazoi nagusien nagusien artean.


Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen Gernika herrian kokatuta, bere indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egiten duela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean “Guernica”-k Gernikan egon behar duela. Ondorioz, honako mozio hau aurkezten dugu Lizartzako Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

- 1.- Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picasso-ren “Guernica” margolanaren kokapenik egokiena, Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, “Guernica” Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiko Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.
- 2.- Udal honek, Eusko Jaurlaritzari dei egiten dio, Picassoren Guernica margolana Gernikan kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Baita ere, margolan hori Gernikan kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan laguntzeko ere.
- 3.- Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaldu nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.
- 4.- Udal honek, erabaki honen berri emango die, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernu eta Kultura Ministeritzari.

“GUERNICA” Gernikara mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

### **MANU AZKARATE PRESOAREN EGOERA**

Manu Azkarate Tolosako preso, kartzela zigorra Espainian betetzen ari dena, larriki gaixoturik dago. Hori dela eta, bere egoera kontuan hartuta:



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

- 1.- Lizartzako udalak eskumena duten espainiar agintariei eskatzen die gaixotasun larriak sufritzen dituzten presoak askatzeko indarrean dagoen legedia, nazionala zein nazioartekoa, aintzat har dezatela datozen egunotan Manu Azkarateren kartzela egoeraren inguruan hartu behar dituzten erabakietan.
- 2.- Lizartzako udalak akordio hau helaraziko dio Manu Azkarateren kartzela egoerari buruz erabaki behar duen epaitegiari, bai eta Espainiako Justizia Ministerioari ere, Azkarate haren jurisdikziopean eta babespean baitago.

Manu Azkarate presoaren egoerari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**9.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ESPARRUKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO ESTATUKO ADMINISTRAZIO ROKORRAREKIN, 2017ko MARTXOA,ren 24an SINATU DEN LANKIDETZA-HITZARMENARI ATXIKITZEKO PROTOKOLOA**

Administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Estatuko Administrazio Orokorrekin sinatutako lankidetzahitzarmenari atxikitzea onartzen da, jarraian zehazten diren baldintzei jarraituta eta hitzarmenaren 1.2 klausularen arabera. Hitzarmen hori, 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago, eta 2017ko martxoaren 24an sinatu zen.

Udalak, hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, hari atxikitzeari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo eguneratu edo etorkizunean aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez. Horrez gain, bere eskumenen arloan, hitzarmenean Euskal Autonomia Erkidegorako ezarritako betebeharrak ere bere gain hartzen ditu.

Atxikimendu hori sinatu ahal izateko, LEIRE GORDO CASTRO, Udaleko Alkateari behar diren ahalmenak ematea.

**10.- BESTELAKOAK**

Ez dago bestelakorik.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzitan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

**ALKATEAK**  
Izpta: Leire Gordo Castro

**IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK**  
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia